

FAQ

Planteatzen al da denbora-mugarik aipatutako proiektuak garatzeko dataren edo ikerketa-lanak argitaratzeko dataren inguruan?

Ez. Ezagutza hori ezartzeak gizartean duen eragina gaur egun neur daitekeen bitartean, ez da denbora-mugarik planteatzen.

"Ez da denbora-mugarik planteatzen" esaten denean, etorkizuneko gizarte-eraginari buruz hitz egiten da?

Ez, esan nahi du proiektuak/argitalpenak -orain neur daitekeen inpaktu soziala sortu duenak- urteak izan ditzakeela.

Ebidentziak lortu nahi dira, ala ebidentziak lortzeko tresnak garatu nahi dira?

Biak. EHUrentzat biak dira garrantzitsuak.

Ikerketa edo argitalpen zehatz baten inpaktu sozialaren ebidentziak bilatu behar dira, ala ikerketa-talde baten inpaktua ikertu behar da?

Ikerketa unitate txikienaren inpaktu soziala neurtu nahi da deialdi honekin, ez ikerketa talde baten traiektoia osoa. Kasu batzuetan argitalpen bakarra izan daiteke, beste batzuetan argitalpen multzo baten emaitza izango da neurtzen dena.

Deialdi hau argitaratzen den egunean eginda dagoen inpaktu sozialeko ebidentziak biltzeko finantzaketa eska daiteke?

Ez. Informazio hori taldearen CVaren barruan eman beharko da, eta proposamenari puntuak emango dizkio.

Ebidentziak gaur egun indarrean dagoen ikerketa-talde baten proiektu baten ezarpenari buruz bilatu behar dira?

Ez nahitaez.

Ebidentziak ikerketa-taldearen beraren proiektu baten ezarpenari buruz bilatu behar dira?

Ez nahitaez.

Zeri deitzen diogu inpaktu sozialaren ebidentziak?

Gaiaren izaeraren eta aplikazio-eremuaren arabera izango da, baina mundu akademikotik haratago sortu diren aldagetez ari gara, gure gizartearen zati baten edo gizarte osoaren ongizateari egindako ekarpenaz. Aldaketa horiek kuantitatiboki zein teknika kualitatiboen bidez jaso ahal izango dira (testigantzak...). Kanpoko erakundeek inplikazioa funtsezkoa izango da ebidentzia horiek identifikatu eta jasotzeko.

Ikerketa-talde aitortua izatea baldintza al da?

Ez

Deialdiak aukera ematen du jada pentsatuta dugun metodologia bat aplikatzeko edo metodologia bat garatzeko eta aplikatzeko?

Bi aukerak dira posible

Zertan datza agentearen inplikazioa? Informazioa soilik biltzen laguntzen?

Proiektu bakoitzaren araberakoa izango da. Ebaluazio-batzordeak alderdi hori baloratuko du, bai kualitatiboki, bai kuantitatiboki.

Stakeholderren mapa (interes-taldeak) lehenago izan beharko genuke eta proiektuaren zati gisa egin beharko litzateke?

Baliteke proiektuan zehar interes-talde gehiago identifikatzea, eta horien ongizatean lagundu du UPV/EHUn sortutako ezagutzak, baina, hasiera batean, proposamenak identifikatu beharko luke zer interes-talderen ongizateari buruzko ebidentziak jasoko diren.

Zeri deitzen diogu ikerketa-taldea eta lantaldea modalitate honetan?

Ikertzaile-taldea UPV/EHUKo pertsonala da, eta lantaldea kanpoko erakundeko ikertzaile-taldea eta langileak dira .

Zer formatutan entregatu behar da gutxieneko ikerketa-taldea osatzen duten hiru pertsonen CVA?

Formatu laburtuan (gehienez 4 orrialde), CVA estiloa